

TOKI-IZENAK: DIATXAK

(Fruniz 1798)

Toki bildurgarria izan da beti Diatxak deritxona, ariztegi aundi baten barruan. Toki orretan, bide-ertzetik urrean, kurutze bat dago eta azpian "Diatxak" izena. Ez uste izan kurutze ori an iñor i: ebela-ko ipiña danik. Ez. Bide-kurutzea dalako dago an kurutzea. Izan be antxe alkartzen dira Fruniz, Fika, Gamiz eta Ibarra'tik datozen bideak, ziur asko 1714n.urtean ziran bide bakarrak. Bide barriak egin bakoak ziran.

Diatxak ba, aresti aundi baten erdian dagoan bide kurutzea da. Baso aundi orrek an dauko ardatza.

Baso aundia zan. Nire ustez sei Km. luze eta 4 km. zabal, guztiz 24 km lautu.

ARETXAK

Aristegi eder ori sasoi aretan aretxez bete-beterik egoan. Baiña gaur?

Gure etxea dago aresti orren barruan. Landako-etxebarri da gure etxearen izena, baiña guztiak Montaña esaten dautsoe. Fikarantza goazela, bide-zabataren alboan antxe ipiñi dabe izena.

Landako-etxebarri dauka izena, Gamiz'ko Olagorta'n dagon eta Landa'ko izena dauan etxeakoak egindako etxebarria dalako. Eta Montaña esaten dautsoe gure aurretik edo lentxuago an Santander'etik etorritakoak bizi ziralako. Orregaitik esaten jako goiko solo bateri Mala Tierra eta Diatxak ondoan dago Campo Libre deritxon lekua.

Nik ondo ezagutu dodaz etxe inguruan ziran aretxak, oso zarrak, eta asko. Benetan aretx ederrak!



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

Bost aretxetan, abarren artean edo enborraren barruan, oilloak egiten ebezan arrauzak eta aretx bateri Frantzisko'rena esaten eutsagun, Frantzisko etxeko artzaiñaren lagunak andik arrautzak ostuten ebazalako.

Aretx areik beti ezarri dauste olako itzaltasun edo barru-min bat: Ain aundiak, ain zarrak, ain asko ta zabal...!

IZENA

Oraintsu irakurri dot Fruniz eta Morga'ri buzu Rikardo Fernandez Begue'k idatzia dauan liburua, Maribi udalkideak emonda. Gero neuk be idatzi dot beste liburutxu bat eukeraz Fruiz'eri buruz.

Liburu orretan auxa dago erderaz idatzita: Fruiz'ko udal-batzarrean asarrea agertu zan, erriarenak diran Diego Aretxeta basoetan zugatzak bota eta bota egiten diralako. Ori 1741 urteko batzar baten.

Berba gitxitan ainbat albiste dagoz or: Basoaren izena Diego Aretxeta, ortik gaurko Diatxak edo Diatxeta. Zelako aldakuntzak izenetan! Baso ori erriarena zala. Orregaitik agertzen da arazoa erriko kontu-liburuan. Aretx oneik orain dirala 250 urte an egozala eta botateko modukoak zirala. Zenbat urte daukez? Bosteun edo geiago bai! Jaurlaritzak ez dauala izten botaten etzun dot, baina berez jasiko dira.

Gamiz'koa dan Ibarra auzoan etxe batek Dione dauko izena. Beti arduraz bizi izan naz izen ori non-dik etorria edo zerena ete dan. Eta ona emen erantzun pozgarria: Diatxetan zer-ikusia eukan gizona, Diego-Aretxeta'ren zaintzaillea bizi zan an, orregaitik bere izena Diego'ne edo Dione. Zoragarria da gure toki-izenen mundua!

Ain urrean daukaguz eta ain jaramon gitxi egiten dautsegu. Oraintxe diardut toki-izenen eta abizenen idaz-lan batzuk egiten, ZER'erako ta EUSKERAZAINZA'rako. Mundu zoragarri batera sartu naz.

Olazar'tar Martin

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ